

# **METODOLOGIA-FITXA**

## **MATERIALEN FLUXUAREN ESTADISTIKA (090217)**

### **Identifikazioa**

#### **Eragiketaren izena.**

Materialen fluxuaren estatistika.

#### **Eragiketaren kodea.**

090217 (10/2023 LEGEA, azaroaren 9koa, 2023-2026 Euskal Estatistika Planari buruzkoa).

#### **Erakunde arduraduna.**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

#### **Beste erakunde partaide batzuk.**

IHOBE

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

#### **Gai-arloa.**

Ingurumena.

#### **Maiztasuna.**

Urtekoa.

#### **Eragiketa-mota.**

Zentzua.

#### **Metodologia datuen jatorriari jarraiki.**

Administrazio izaerako informaziotik abiatuta lortutako datuak.

### **Sarrera**

Materialen fluxuaren estatistikak lurralde baten sistema ekonomikoan sartzen diren material fisikoen sarrerak (inputak) erakusten ditu, bai ingurune naturaletik, bai beste ekonomietatik, eta materialen irteerak ere bai, beste ekonomietara edo natura-inguruner. Unitate fisikoen kontuak dira (tonak), elementu kimikoak, lehengaiak edo produktuak erauzte, eraldatzea, kontsumitzea eta ezabatzea deskribatzen dutenak. Kontu horiek baliabide naturalen erabilerari lotutako adierazle multzo bat lortzeko aukera ematen dute; horien bidez, baliabideen produktibitateari buruzko adierazleak sor daitezke (eko-efizientzia) BPGrekiko eta beste adierazle ekonomiko eta enplegukiko, bai eta bizi-

estiloetako materialen intentsitate-adierazleak ere, biztanleriaren tamaina eta beste demografia-adierazle batzuk kontuan hartuta.

## Helburuak

Helburu orokorra baliabide materialen kontsumoan eraginkortasuna neurtzea da.

Gainera, materialen fluxuen analisiak honako helburu hauek ditu:

- Ekonomiaren metabolismo fisikoaren egiturari eta aldaketei buruzko informazioa ematea.
- Baliabide naturalen erabileraren adierazle agregatuak lortzea.
- Baliabideen produktibitateari eta ekoeraginkortasunari buruzko adierazleak lortzea, baliabideen erabilera-adierazleak BPGrekin eta beste ekonomia- eta enplegu-adierazle batzuekin erlazionatuta.
- Bizi-estiloetako materialen intentsitate-adierazleak ematea, adierazle horiek biztanleriaren tamainarekin eta beste demografia-adierazle batzuekin erlazionatuz.
- Informazio mota honen eskaera politiko eta sozialen aurrean estatistika-datuak ematea.

## Metodologia

Materialen fluxuak aztertzeke EAEn erabilitako kalkulu-metodologia bi metodologiaren arteko nahasketa bat da: Europako Ingurumen Agentziak (Bringezu eta Schütz, 2001) egindako metodologiaren inputentzat, eta Eurostatek fluxuen materialen adierazleentzat erabiltzen dituen metodologiarena outputentzat. Nahasketa horri hainbat ñabardura sartu zaizkio EAeko errealiterara hobeto egokitzeko.

Administrazio-datu-iturri ugari erabiltzen dira (esaterako, nekazaritza, basogintza eta arrantza, ekoizpenari buruzko estatistikak, azterketa geologikoak, energiaren estatistikak, kanpo-merkataritzaren estatistikak, etab.). Administrazio-datu iturririk ez badago, kasu batzuetan estimazioak egiten dira.

EBko datuak dituzten taulek (2. eta 3. artxiboak, Euskadi EBn) materialen fluxu-kontuen zuzeneko input materialak (ZIM) bakarrik dituzte kontuan. Ez dira Fluxu Ezkutuak (FE) kontutan hartzen, 1. artxiboko Euskal AEko tauletan kontabilizatu direnak.

## Aztertzeke aldagai nagusiak

- Materialen barne-kontsumoa (**MBK**) hau da ekonomian zuzenean erabilitako materialaren guztizko zenbatekoa
- Barne-erazketa erabilia (**BE**) ingurumenaren sarrera da, ekonomian erabiltzeko. Ingurunetik erauzitako lehengaiaren urteko zenbatekoa (ura eta airea izan ezik).
- **Importazioak** (Munduko gainerakoa eta Estatuko gainerakoa)

- **Esportazioak** (Munduko gainerakoa eta Estatuko gainerakoa)
- Zuzeneko input materialak (**ZIM**) neurtzen du zuzenean zenbat materialen ekarpena egin den ekonomian erabiltzeko; alegia, barne-erazketa (BE) + inportazioak.
- Fluxu ezkutuak (**FE**) baliabide natural primarioei lotutako fluxua osatu baina ekonomian sartzen ez diren materialak
- Beharrezko material guztia (**BMG**) honako hauen arteko batura da: etxeko materialak; inportatutako materialak (ura eta airea izan ezik); eta aurreko biekin lotutako fluxu ezkutuak. Ekonomia batek funtzionatu ahal izateko baliabide primario guztiak.
- **Intentsitatearen Indizea**, MBK (Materialen Barne-Kontsumoa) biztanleko.
- **Produktibitatearen Indizea uneko prezioetan**, BPG/MBK (Materialen Barne-Kontsumoa eta BPGa uneko prezioetan).
- **Produktibitatearen Indizea Erosteko Ahalmen-Parekotasunean (EAP)**, BPG/MBK (Materialen Barne-Kontsumoa eta BPGa EAPn).

## Eremua

### **Populazio-eremua:**

Materialen fluxuaren kontuek jasotzen dituzte lurralde baten sistema ekonomikoan sartzen diren material-sarrerak, bai ingurune naturaletik, bai beste ekonomia batzuetatik. Irteerak ere jasotzen dituzte, hauek ere beste ekonomia batzuetara edo ingurune naturaletara ateratzen direnak dira. Unitate fisikoetako unitateak dira (tonak), eta elementu kimiko, lehengai edo produktuen erazketa, transformazio, kontsumo eta amaierako ezabatzea deskribatzen dituzte (INE, 2003).

Kalkuluak materia kontserbatzeko termodinamikaren lehen legean oinarritzen dira. Ildo horretatik, masaren balantze xumeak egiten dira; horrela, sisteman pilatzen diren materialak dira sartzen diren materialen eta bertatik ateratzen diren materialen arteko aldea.

### **Lurralde-eremua:**

EAEko balio esanguratsuenak jasotzen dira.

### **Denbora-eremua:**

Jasotako datuak urtean zehar erregistratutako jardueren ingurukoak dira.

## Galde-sortak

## Zabalkundea

- Interneta: Sintesi taulak. **Estatistika Organoa**

[Taula estatistikoak](#)

- Interneta: Estatistika taulak. **Eustat**  
[Eustat](#)